

PRENTSA TXOSTENA

DOMUND

2025eko urriak 19

**Herrien arteko
itxaropen
misiolariak**



#Domund
¡Lagundu!
www.domund.es



Espainiako Aita Santuaren Misio Ekintzak
Javier López - 91 590 29 43 - prensa@omp.es

Urriak 19: DOMUND

Zer da Domund?

DOMUND (Munduko Misioen Eguna), Eliza osoak, misiolarien alde otoitz egiten duen nazioarteko eguna da, horrez gain, laguntzeko, diru-bilketa bat antolatzen du. Kanpaina hau funtsezkoa da Elizak mundu osoan zehar ebanjelizatzeke duen lanean jarraitzeko.

Nork parte hartzen du?

Kristau guztiak gonbidatuak daude misio-ekintzetan aktiboki parte hartzera. Lehenik eta behin, misiolariak (2. eta 3. or.). Pauline Jaricoten instituzioari esker —Domund-en atzean dagoen indar eragilea—, edonork parte har dezake otoitzarekin, dohaintzekin, eta bere denbora eskainiz (4. or.). Ez da misioarekin "elkarlanean aritzea" bakarrik, baizik eta haren parte izatea.

Zertara bideratzen da dirua?

Domund-ek urtero biltzen dituen diru-funtsei esker (5. or.) Elizaren presentzia ziurtatzen da **1.131 Misio Lurraldeetan**. Aita Santuak elizbarruti misiolari guztiei laguntzeko duen modua da (6. or.). Domunden urteko laguntzak Elizari aukera ematen dio Berri Ona mundu osoan zabaltzeko, eta behar gehien dutenei itxaropena helarazteko (7. or.).

Nork antolatzen du?

Aita Santuaren Misio Ekintzak (OMP) Vatikanoren Misio Lurraldeak laguntzeko bidea dira. Erakunde hau osatzen duten lau erakundeetako bat, "Fedearen Hedapena" izenekoa, Munduko Misio Eguna antolatzen duena da. Bere sortzailea, Pauline Jaricot, 2022an, beata izendatu zuten.

Domund 2025eko
Aita Santuaren
mezua hemen
irakurri dezakezu



Misiolariak.




Kristau guztiak bataioaren bidez Ebanjelioren berri ematera gonbidatuak daude. Hala ere, bere bokazio propioarekin, Jainkoak, batzuk, beren herrialdetik kanpo, horretara deitzen ditu. **Misiolariak** dira.

Espainia misiolari-sehaska bikaina da. Bere historia misiolari handiez jantzia dago, hala nola Frantzisko Xabierkoa, misioen zaindaria. Gaur egun, **Espainia, munduan zehar misiolari gehien dituen herrialdeetako bat da.**

- **9.648 misiolari espainiar daude** erregistratuta OMP-ren datu-basean. Horietatik, 5.624, gaur egun, kanpoan daude, misioetan, eta 4.024, berriz Espainian, misio animazioarekin lankidetzan edo nora joan beharreko herriaren zain.
- Espainiako misiolarien %53a emakumeak dira, eta %47a gizonak.
- Misiolari espainiar gehien dauden herrialdea, Peru da (524).
- Misioetara misiolariak bidaltzen dituzten 377 erakunde daude. Bakoitzak karisma ezberdina du, baina beti elkartasunean daude guztiak.

ESPAINIAR MISIOLARIOEN PROFILA



"Inspiratuta senti gaitezen denontzako itxaropenaren zeinu eta mezulari izateko, Jainkoak bizitza ematen digun leku eta egoera bakoitzean. Bataiatu guztiek, Kristoren dizipulu-misiolariak, munduko bazter guztietan beren itxaropena piztu dezatela!"

Domund 2025 Mezua. Frantzisko Aita Santua



Alberto Cisneros misiolaria da Esmeraldasen (Ekuador). Ezagutu haren lekukotasuna eta beste misiolari batzuen www.domund.es-en



Guztiok izan gaitezke misiolari

Aurtengo jardunaldirako bere mezuan, Frantzisko Aita Santuak kristau guztiei, eta bataiatuen elkarte gisa, Elizari, gogorarazi zien Kristoren urratsei jarraituz itxaropenaren mezulari eta eraikitzaile izateko duten oinarritzko deiera —"herrien artean itxaropenaren misiolariak"— Kristoren bidea jarraituz. Bokazio honek Elizaren gainerako kideen laguntza behar du. Nola? Hiru misiolari lankidetzak mota daude. Ez da misioarekin lankidetzan aritzea bakarrik, bertan parte hartzea baizik.



Pertsonala

Lankidetzak pertsonala misioan laguntzeko modu bat da. Ia 10.000 gazte espainiarrek eskaintzen dituzte udako oporrak urtero misiorako, eta **1.791 boluntario** ere badaude ordezkaritzetan, parroketan, artzapeztegietan..

Espirituala

Otoitzaren eta sufrimenduaren eskaintzaren bidez, katolikoek misiolariarekin lankidetzan aritu daitezke. Ekimen ugari daude Espainian: 60.000 "**misolari gaixo**", 132 otoitz bilera egin ziren 2024an, klausura-komentuak...

Ekonomikoa

Domund-en bidez, eta urte osoan zehar, Aita Santuaren Misio Ekintzei eskaintzen zaion diruarekin laguntza ematen zaie **1.131 Misio Lurraldeei**, Elizak bere misioa mantentzeko baliabide nahikoak izan ditzan.

"Kristogan fede heldua helarazi eta misiolari-ekintza sortzeko, Elizaren lan osoaren paradigma da."

Domund 2025 Mezua. Frantzisko Aita Santua


Emakume bat Domund-en jatorri

- 20 urte besterik ez zituela, Pauline Jaricot izeneko emakume laiko frantses gazteak otoitz-dohaintzan oinarritutako lehen misiolari sare soziala sortu zuen: 10 pertsonako taldeak, misioen alde otoitz egin eta lankidetzan aritzen ziren. 1822an sortu zen, eta fedea Zabaltzeko Elkartearen hazia izan zen. Ekimen hau izugarri hazi, eta Frantzian eta mundu osoan zabaltzen.
- 1922an, Aita Santuak "Aita Santuaren Ekintza" izendatu zuen eta Elizaren jardueraren ohiko laguntza-bide izendatu zuen.
- 2022an Pauline beatifikatua izan zen.



Domunden kontuak

Eliza Misiolariaren lan itzela ikusita, Aita Santuak Domund Egunean bildutako dirua Aita Santuaren Misio Ekintzei (OMP) emateko eskatzen du, Misio Lurralde guztietan banatu ahal izateko katolikotasunaren, hau da, unibertsaltasunaren, seinale gisa.




2024an, Fedearen Hedapenaren Elkartasun Funts Unibertsalak (DOMUND) 64.298.390,44€ lortu zituen. Maiatzean, mundu osoko OMPko zuzendariak erabakitzen dute zein proiektuk laguntza jasoko duten, eta herrialde bakoitzari jakinarazten zaio nora bidali behar diren bildutako funtsak.

Espainia da gehien laguntzen duen bigarren herrialdea

Espainiarrak oso eskuzabalak dira Domund-ekin, eta Ameriketako Estatu Batuen ondoren, Elkartasunerako Funts Unibertsalari ekarpen handiena egiten dion munduko bigarren herrialdea da Espainia. 2024an, Espainiak 10.351.613,49€ eman zituen Funtsera 2025eko proiektuetarako.

Diru-sarreraren iturria 2024an



2024an lagundutako proiektuak

Guztira: 9.673.376,35€

26 herrialde
179 elizbarruti
413 proiektu

- 174 arrunta (misioen eguneroko gastuak)
- 107 katekesikoak
- 132 ezohikoak
 - 108 eraikuntza eta konponketa
 - 10 kristau heziketa
 - 7 komunikabide
 - 7 hornikuntzak

Iturria: OMP Espainia 2024ko Txostena


"Ardura apostolikoa sustatzea Elizaren berrikuntzaren funtsezko alderdia da, eta are premiazkoagoa da gaur egun. Gerrak, indarkeriak eta bidegabekeriak zauritutako gure munduak Jainkoaren maitasunaren mezu ebanjelikoa entzun behar du, eta Kristoren graziaren adiskidetze-ahalmena bizi".

Leon XIV Aita Santuaren hitzaldia Aita Santuaren Misio Ekintzei. 2025eko maiatza.

Nork jasotzen ditu laguntzak?

Munduko leku jakin batzuetan, Eliza gazteak daude. Misiolariek sortu ondoren, oraindik hazten ari dira, eta ez diren autosufizienteak, ez pertsona kopuru, ez ekonomi aldetik. Hauek "Misio Lurraldeak" bezala ezagutzen ditugu. Haien etorkizuna, garapena eta sustrai sakonak bermatzeko, **Aita Santuak Domunden Aita Santuaren Misio Ekintzekin kolaboratzen dutenen laguntza du**. Dirua, modu bidezkoan banatzen da guztien artean, Vatikanoren laguntza urtero jasotzen dutela bermatzeko, eta, horrela, urtero, Misio Lurralde bakoitzari laguntzen zaio.

Domunden laguntzei esker, munduko biztanleriaren %60ari Ebanjelioa zabaltzen jarrai daiteke 1.131 Misio Lurraldeen eskutik.




- Guztira 1.131 elizbarruti daude Misio Lurralde direnak. Munduko bataio guztien herena, bertan ospatzen dira.
- Elizbarruti hauek **Lurraren azaleraren %43 osatzen dute**, eta munduko **biztanleriaren %60 baino gehiago** bizi dira bertan.
- **Afrikan**, 530 Misio Lurralde daude, eta **Asian**, 483. **Ameriketan**, 72 daude, gehienak Amazonas arroko eskualdeko komunitate gazteak. **Ozeanian**, guztira, 46 daude.
- **139 herrialdetan** daude Misio Lurraldeak. Horien artean, kopuru handiena Indian daude (132), Nigerian (59) eta Kongoko Errepublika Demokratikoan (48).
- 2024 urteaz geroztik, **Frantzisko Aita Santuak, zortzi Misio Lurralde berri sortu zituen**: Boké (Ginea), Labuan Bajo (Indonesia), Bentiu (Hego Sudan), Ganda (Angola), Lüliang (Txina), Goi Molócuè (Mozambike), Mindat (Myanmar) eta Bagamoyo (Tanzania).
- **Munduko Eliza Katolikoaren aurpegia** aldatzen ari da. 1978an, munduko 100 katolikotik 7 baino ez ziren afrikarrak. Gaur egun, kopuru hori ia hirukoiztu egin da, %20ra hurbilduz.
- Eliza Katolikoaren **eskolen** ia erdia, eta **gizarte-erakunde**en %30 (ospitaleak, umezurtzegiak, zaharren egoitzak, etab.) misioetan daude. Elizak, eremu horietako **99.255 eskola** eta **32.506 gizarte-erakunderi** laguntza luzatzen die.

Zertan gastatzen da dirua?

OMP-ko diru-laguntzak Misio Lurralde guztiek Aita Santuarengandik jasotzen duten urteroko laguntza dira. Tanta iraunkor bat bezalakoa da, eta eremu hauetan Elizaren presentzia, haien sendotzea eta hazkundera ahalbidetzen duena.

Elkartasunerako Funts Unibertsalaren ia erdia, misiolarien elizbarrutientzako ohiko laguntzara bideratzen da, eta hauek **eguneroko gastuetara** bideratzen dira Eliza zabalik mantentzeko. Beste erakundeek ematen ez duten laguntza hori gabe, misio-lurralde askok zailtasunak izango lituzkete beren ebanjelizatze eta karitate-lanarekin aurrera jarraitzeko.

Gainerako dirua Misio Lurraldeek urtero eskatzen dituzten **ezohizko proiektuetara** bideratzen da. Funts hauei esker pixkanaka, tokian tokiko Eliza eraikitzen eta eratzen da, erroak bota eta bere presentzia eremu berrietan hazteko aukera emanez; Ebanjelioa eta horrek dakarren guztia lurraren azkeneko muturreraino eramanez. Era honetan banatu ziren diru-laguntza hauek 2024an:



Almudena Ríos, Bunda (Tanzania).

"Bundako Elizan anaitasunean bizi gara. Batasuna gara. Benetako misiolari-kontzientzia dute. Gizonezko, emakumezko, gazte eta hurrez osatutako mugimendu apostolikoak sortu ditugu. Pobre eta behartsu gisa ikusten ditugun hurrek badakite beraien otoitzekin munduko beste leku batzuetako behartsuei laguntzen dietela."

"Zuei eta zuen kolaboratzaileei eskerrak eman nahi dizkizuet zuen zerbitzu konprometituagatik, Elizaren ebanjelizatze-misiorako ezinbestekoa baita, nik neuk, Perun, eman ditudan urteetan ikusi izan dudana bezala. Aita Santuaren Misio Ekintzek bataiatu guztien artean misio erantzukizuna suspertzeko, eta Eliza gaztea den lekuetan eliz komunitateak sostengatzeko bitarteko nagusiak dira"

Leon XIV.aren hitzaldia Aita Santuaren Misio Elkarteei zuzendua. 2025eko maiatza.



Informazio gehiago eta elkarrizketetarako:

Aita Santuen Misio Ekintzetako komunikazio saila zure esanetara gaude zure lana errazteko. Kontaktua, datuak, argazkiak eta ikus-entzunezko baliabideak eskain diezazkizukegu. Jardunaldi honi buruzko informazioari eman nahi diozun ikuspegian laguntzeko prest gaude

Javier López prensa@omp.es
91 590 29 43
www.omp.es/prensa



w.domund.es-en